

# Denboraren makina

N A G O R E I R A Z U S T A B A R R E N A

## Ingelesen hilerritik zerura

MADRIL, 1605EKO UZTAILA. Espainiako Filipe III.a erregeak merkataritza ituna sinatu zuen Erresuma Batuekin eta, itun horretan, besteak beste, Ibaizabal itsasadarrean, La Salve parean zegoen “Zazpi Zuhaitzen” uhartean, “ingelesen kanposantua” egitea adostu zuten, oztopo erlijiosoak medio. Izan ere, Bizkaiko kostaldetik hurbil edo Bilboko portuan bertan hildako protestanteak chorzteko ezin ziren hilerririk erabili. Britainiar uhartekiko harreman ekonomikoak sendotu ahala, geroz eta britainiar gehiago biltzen eta hiltzen ziren Bilbo inguruan eta, beraz, geroz eta gehiago erabili zuten hilerririk. Horrenbestez, egun Abandoibarra izenez ezagun dugun eremuari “Ingelesen zelaia” esan zitzaion luzaroan.

Urteak joan ahala, itsasadarren uraldiek eremua hondatuta utzi zuten. Mr. Young kontsularen eskaerari erantzunez, hiriak lurzoraren jabetza Britainiar Kontsulatuari utzi zion, eta eremua berrekitzen hasi ziren. Berritua ere hilerririk modura erabiltzen hasi ziren, Renfeko 1888an handik hurbil inauguratu zuen geralekuak eman zion bultzadaz lagunduta.

Itsasadarreko kaiak hazi eta zabaldu zirenean, hilerririk lekualdatzea nahitaezko bihurtu zen, baina



GERENS HILL

Bilboko Iberdrola Dorrea eraiki duten eremua britainiarren hilerririk izan zen, 1605ean Filipe III.a Espainiako erregeak hala agindu zuenetik.

ren ekintzak abiatu zituzten, eta, lan horien ikur, 165 metroko Iberdrola Dorrea eraiki dute ingelesen hilerririkaren gainean.

afera korapilatsua izan zen. Lehenik Bilboko Udalak, eta, ondoren, Portuko Lan Batzordeak berak, britainiarrei hilerririk lekuz aldatzeko eskatu zieten, baina ezezkoa jaso zuten biek. Azkenean, 1908an, Espainiako Alfontso XII.ak Errege Agindu bat eman behar izan zuen, britainiarrek amore eman zezaten.

Hilerririk lekualdatuta, Abandoibarrako ibar zabala Bilboko haurren futbol zelaia izan zen; hantxe jokatu zuen gero futboleko izar izango zen Rafael Moreno “Pichi-chi”k. Olabeagako Acero Club delakoaren egoitza, Manuel Zubiaga hegazkinlariaren lurreratze pista eta, 1928an, Krone eta Karl Hegenberg zirkoen kokaleku ere izan zen “Ingelesen zelaia”.

40ko hamarkadan, Deustura daraman zubitik jaisteko arrapala eraiki baino lehen, Bilbo inguruko beste hainbat toki bezala, lurzoruzati hori txabolek hartu zuten. 60ko hamarkadan langileentzat etxebizitza asko egin arren, txabolak ez ziren Abandoibarretik desagertu, Renfeko salgaien terminal bihurtu zen arte. Azkenik, 90eko hamarkadan, hirigintza erreforma-

## Arrastoak

### Adolphe Saxek klarinetea hobetu nahi zuen

ADOLPHE SAX (1814-1894) musikari belgikarrak flauta eta klarinetea jotzen ikasi zuen Bruselan. Klarinetearen tinbrea eta soinu kalitatearen hobetua nahirik, hainbat eredu asmatu zituen, 1846an gustukoaren zuena patentatu zuen arte. Bere abizenaren oinarrituta, saxofoi

deitu zion. Hala ere, tresna berriari ez zioten orduan harrera beroegirik egin. Egia da Berliozek eta Debussyk beren obretan sartzea erabaki zutela. Baina jazz musikari modernoak izan ziren Saxen klarinete okerrari ospea eman ziotenak.



TOM OATES